

Baloreen Eskualdatzea

Zertan datza?

BBVArekin jarraian adierazten ditugun baldintzez baliatu ahal izango zara zure estatuko zein nazioarteko akzioak eta ETPak beste entitate batetik BBVAra eskualdatzean.

Zein baldintza eskaintzen dizkizugu?

Zure baloreak eskualdatzeagatik:

- **Zure baloreen eskualdatzeagatik** ordaindu behar dituzun **gastuak konpentsatzen dizkizugu**, gehienez ere, kopuru honetaraino: **240 €** bezero bakoitzeko, kanpaina honek indarrean irauten duen bitartean egindako eskualdatze guztientzat.
- Baloreen tarifako baldintza **bereziatarara bildu ahal izango zara:**

AKZIOAK		ETPak (ETF, ETN eta ETCak)
Zaintza-komisioa	Salbuetsia urtebetez	Salbuetsia
Eroste/saltzeko eragiketak bbva.es-en eta BBVA app-an	Tarifa lehiakorren erabilgarritasuna BBVA Trader Burtza Zerbitzuarekin (*); bbva.es-en zein BBVA app-an kontratatu dezakezu.	% 0,15 minimorik gabe

(*) BBVA Trader Burtza Zerbitzua doakoa da. Hori kontratatu ezean, Balore Kontratuan jasotzen den komisio estandarra aplikatuko zaizu.

Zein baldintza behar dira?

- BBVAko bezeroa izan behar zara.
- Eskudiruko kontu bat lotuta izan behar duen BBVA balore-kontu baten titularra izan behar zara.

Ez baduzu konturik irekita BBVA-n, bat ireki dezakezu. Galdetu eskuragarri ditugun kontuei eta euren baldintzei buruz.

Zure Akzioen eta ETPen balore-eskualdatzeak kanpainari atxiki ahal izango zaizkio, baldin eta balore bakoitzaren (jaulkipena edo ISINa) balio efektiboa 2.000 €-koa edo handiagoa bada eskualdatzearen unean.

Noiz arte atxiki zaitezke promozio honetara?

Promozio honetara 2026/12/31 arte atxiki zaitezke. Data horretatik aurrera, kontsultatu promozio hau zein beste batzuk zure BBVA Kudeatzailarekin.

Ba al zenekien...?

- Beste entitate batean gordailututako akzioak edo ETPak (ETF, ETN, ETCak) badituzu eta BBVAra eskualdatu nahi badituzu, gure bulegoetako edozeinetan entregatu besterik ez duzu eskualdatu nahi dituzun baloreen azken laburpena, kontratuaren titular bakoitzak sinatuta. Era berean, IBEX 35eko baloreak direnean, gure kanal digitalen bidez ere eska dezakezu eskualdatzea. Baliteke akzioak eskualdatuko diren bankuak tituluen eskualdatze-komisio bat kobratzea (promozio honetan konpentsatu ahal dizuguna, aurretik adierazitako kopururaino). Gainerako gestioez gu arduratuko gara.
- Eskualdatze-gastuen konpentsazioaren kalifikazio fiskala ondare-irabaziarena da; beraz, zenbateko hori ez dago konturako atxikipenaren mende. Hala ere, tributazioaren mende dago, eta bezeroak bere aitorpenean sartu beharko du.
- Gogoan izan, indarreko araudi fiskalaren arabera, akzioen edota ETPen salmenta, bai eta jasotako dibidenduak ere, PFEZaren mende daudela.

BBVAn eskaintzen dizugun informazioaren argitasuna eta gardentasuna zaintzen ditugu. Gure kudeatzaile guztiek produktu baten ezaugarriei buruzko azalpen argiak eta ulertzeko errazak emango dizkizute.

Dokumentu honek informazio komertziala dauka, eta kontratua sinatu aurretik kontuan har dezazun legez eman behar dizugun informaziotik independentea da.